

Dirua eta ura

IÑAKI ZABALETA URKIOLA



«DUENAK ez duenari ematea... errezatzen zuen amak etxean, neu mutikoa nintzela. Garaiak joanak dira eta orain «duenak duenari ematen dio». Egunkariak ditugu horren adibide.

El Correo Español, Deia, eta Diario Vasco egunkariak diru asko, milioi asko hartu dituzte instituzio publikoetatik subzentzio modura, Egin ere kobratzekotan izango da, kobratu ez badu ia. Lau horiek ere enpresa pribatuak dira. Diru publikoa enpresa pribatu horietara joateaz kezaxten ez dut ez kazetari ez politikoa bat ere entzun. Baina EGUNKARIAK instituzio publikoetara diru laguntza eta partaidetza eskatu dienean, ezetza izan da erantzuna (Nafarroan izan ezik), Locke eta Smith liberalen bidea jarraitu behar dela. «Eta pekatutik gabeak bota dezala lehen harria»... errezatzen zuen amak (etabar).

Aipatutako lau egunkari horiek ere publizitate instituzionala barra barra jasotzen dute. Milioi asko urtean. Informazio iturri hori hiriartaren eskubide bat baita, eta gobernuaren obligazioa. Baina EGUNKARIAI oraingoz ezetza eman diote. Aitzakiak eta justifikazioak aurkitzea ez da oso zaila izaten.

Baina konbentziturata nago, Eusko Jaurilaritzako nazionalistek euren giza-kalitatea, euren giza-bidea eta eskuzabaltasuna ere erakutsiko dutela EGUNKARIAren kasuan. Denboraren erlojuak ez baitabil atzeraka, eta iturriko ura ez baita aldapa gora joaten. Zorionez.

Neurri bila

JOSE LUIS ALVAREZ ENPARANTZA «TXILLARDEGI»



ESLOBENIA:

1.891.000 biztanle. Gehien-gehienak eslobenieraz mintzo: 1.712.000 hitzun. Erditsua leledun: Belgrado-ko

hizkuntza nagusia jakitea komeni: serbo-kroaziera, alegia.

Herri aurreratua Eslobenia. Eta orain, hain zuzen, Autodeterminaziorako prozesuan abiatzekotan.

Hiru egunkari Eslobenian eslobenieraz hutez, Belgradotik eta bestetatik datorrenaz gain: «De-lo» (goizetan), 100.000 ale; «Dnevnik» (arrats.), 51.000 ale; «Vecer» (Maribor-koa), 55.000 ale; (lehenengo biak Ljubljanan argitaratzen dira).

Egin dezagun batuketara: 206.000 ale eguneroko eslobenieraz hutez. Alegia: 120,3 ale / mila biztanleko (eslobenieraz-dunak, alegia). «Apala», omen: Suezian 514 ale irakurtzen baita biztanleko...


Egin dezagun kalkulua Euskal Herriari buruz, eta euskaldunak bakarrik kontutan hartuz. Eman dezagun EGUNKARIAren 25.000 ale argitaratzen direla eguneko; eta 650.000 euskaldun ditugula. Zatiketarik emaitza hau dakar: 38,5 ale / mila biztanleko.

Urrun gaude oraindik Eslobeniatik, eta are urrunago Sueziatik. Baina ongi abiatu gara.

Eire-ko «Lá» egunkaria, osoki gailikoz argitaratua, bat edo beste oroitzen dateke: irakurlerik ezagatik, bi hilabetetan... potto!

Eutsi goiari, beraz!

HEMEROTEKA



«Aze blokeoa... Aze nobedadea» / TULINU / DEIA / 90-XII-12

EL PAIS

Esparru serbioa

Ze eragin izango du Milosevicen hautaketak beste errepublikekin harremanetarako? Orain arte, arlo horretan izan duen jokabidea zorritzarekoa izan da. Kosovoren zapalketa ez zuen bakarrik Eslovenia eta Kroazian haserrea sortu, baizik eta Beogradek bere hegemonia Jugoslavia guztian ezartzeko betiko irrikia erakutsi zuela. Zagreb eta Ljubljanan korronte independentistak hazi egin ziren. Serbian komunismoa nazionalismoarekin ezkondu bazen, Eslovenia eta Kroazian aitzitik, aniztasun eta demokrazia antsia eta independentzia borrokatzen arretela batasuna gertatu zen. Herriko bada, enfrontamenduak ugaritzen doazen egoera batera heldu dira, Milosevicen aukeraketa eta ge-

ro ere larritzen joan daitezkeenak.

EDITORIALA / 90-XII-12

EL INDEPENDIENTE

Gobernua eta ETA

Euskal Herriko independentismo erradikalak gauzak bortsatu nahi ditu 92aren gertutasunari probetxu ateraz. Bere mehatuak Barcelona eta Sevillako Expoari zuzendu dizkio. Nazioarteko oihartzuna ahal bezain beste aprobetxatu nahi duen txantaje zikina da. Baina ezker ez du galerazien, ez eta gutxiagorik ere, amets gaizto honi bukaera jartzeko irtenbide argi eta maiguak bilatzea. Hauek bat Euskal Herrian nazionalista eta sozialistak berri batzea izango litzateke. Gero euskal gizarteak indarkeria are gogorrago gaitzestea bultzatu beharko litzateke, eta «bloke

demokratikoaren» sendotzea. Eta gaurdanik, nahasketa gutxiagoko politika bat. Nork sinets dezake, esate baterako, bere lekuan darraien Antoni Asuncion frankotiratzaile bat denik?

EDITORIALA / 90-XII-12

LE FIGARO

«Erdialdeko Inperio» berria

Ekdialdeko Europa Alemaniaren babes ekonomikora iragateko bidean al da? Egin beharreko galdera da gobernu txekoslaviarrak Skoda, bere automobil fabrika nazionala, Volkswagen-i, eta ez Renault-i, saltzea erabaki duenetik. Aukera honek asko adieraz dezake, Ekdialdean jokatzeko ari den partidaren emaitza aurrerakusten bait du. Duela gutxi arteko Mitelet Europa, Alemaniaren itzal-

pean birreraitzeko prest dago guztia. XIX. mendeko prusiar politikaren oinarriaren izenean gainera: «Drang nach Osten», bestela esanda «Ekdialdeko Inperioaren» hiriburu bera(...)

Gudaldi hau irabazten badu Alemaniak, Europako grabitate guinea izango da aldatuko dena; Berlin izango da beraz hiriburu berria, «Erdialdeko Inperioaren» hiriburu bera(...)

FRANZ OUBIERT GIESBERT / 90-XII-12

egin

Ukapen esanguratsuak

Atzo 'Egin-ek' argitaratutako asteleheneko 'Diario 16-eko' editorialek haxe zioen: «Zorionez, Kataluniarri dagokionean, ETArenganako babes» desagertu da, baita independentismo katalanaren esparru erradikalaren ere. Terra Lliurek honela azaltzen zuen borroka armatua berriki uztearen arrazoia: «Azken urtean Europan bizi izandako gertaerak errepresio militarren beldur gabe autodeterminazio eskubidearen alde egin daitezkeela adierazten dute». Badakigu hemen ezin dela autodeterminazio eskubidearen alde jardun (...)

LUIS NUÑEZ / 90-XII-12

PERTSONAIA



Jesus Egiguren

Nazionalistek dute haserre zorrotza sozialistei ezarri nahirik bere hortza. Parlamentuko mahaia baietz biek osa... azkenik entzuten da Jesusen ahotsa: Eseri denok lasai eta ondo goza; bedekintzen dut gure bigarren ezkontza!

MIKEL MENDIZABAL

ZUZENDARIARI

Ohiturak aldatzen

Ez zarete lan makalean sartu, egunkari bat euskaraz egin eta saltzeko asmotan. Animo!, bada, beste ezer baino lehen.

Egunkari bat euskaraz argitaratzeko erronka izugarria da gure gizarte euskaldunarentzat eta neurri handi batean orain arte egindakoa frogatzeko arragoa, orain arteko euskalduntze, alfabetatze, ikastola, etab. neurtzeko termometroa.

Egunkari bat, ordea, ez da urtean behin Kilometroak-era joatea edo pegatina bat erostea, gure eguneroko oihitura sakratuak aldatu ala ez erabakitzea baizik, alegia, Diario Vasco, Egin edo Deia-oren ordez beste bat erostea.

«Enbido» horri askok esango dio «paso» euskarazkoak duen maila informatibo eskasa aitzakizat hartuz. Jokaera hori aitzaki

hutsa izatea dagokizue zuei «euki» esan diogunoi informazio txukun bat eskainiz.

Gaiak zarete, ordea, gure artean bizi dugun leiha basati honetan euskararen banderarekin, jai duzue erakunde publikoen (pluralean) laguntzarik gabe. E.A.J.-k berraztertuko duela uste dut bere erabakia eta eskatutako laguntza eskainiko dizutezela, emango digutela, irakurleok bait gara egunkari euskaldun baten behar. Ez zait batera axola beste bat egiteko asmorik badute, hobe!, jende gehiagotara helduko da euskarra, baina ezin utzi dezakete itozten hain ausarki pauso garrantzitsu hau eman duen EGUNKARIA.

MARTXEL AIZPURUA

Faxismoari ez

«Futbola eta garagardoa» beraien eslogana, Hitler liderra, biolentzia bizimodua, Martens eta Bumper-a jazerak eta buru txuri-rapatua

dute adierazgarria. Orain arte Ingalaterran edo Alemaniaren zegoen mobida «Skin-head» hau Euskal Herriari inportatu digute. Azken urteotan Europan, baita Estatu Espainiarran ere (Catalunya, Pais Valencia, Madrid...), ikusi diren talde hauen ekintza arrazista eta faxistak badirudi honutza ekarri nahi dituztela Donostiako kaleetako paretetan irakurri ahal daitezkeen (ETA jitoak akatu). Euskal Herrian ikusten hasi diren talde berri hauen sinboloa gurutze zeltikoa da, historikoki neoneazismoarekin loturik egon dena (CEDAE, Ordre Nouveau...); hor ikusten da beraien ignorantzia bere buruari abertzale izena ematen ditenean. Skindarren filosofia Irungo fanzine batean («Leinu berriaren bila») irakur genezake eta igandero Atotxan adierazten dira Ipar Brigadak (Real Skins) izenpean, noren biktima izan bait naiz Real Athletic partiduan.

FERNANDO ROJO

Administrazio Kontseiluko Lehendakaria: MARTIN UGALDE

Zuzendaria: PELLO ZUBIRIA

Kontseilu Editorialeko Lehendakaria: JUAN MARI TORREALDA

Zuzendariordeak: NEREA AZURMENDI LUZIAN ETXEZAHARRETA IÑAKI URÍA

Kontseilari Ordezkarria: JOXE MIEL ZUMALABE

Publizitatea: KORNELIO ROTETA

Gereenta: INMA GOMILA

Egunkaria

HELBIDEAK

Egoitza soziala eta Administrazioa: Antso Jakituna, 16-1 / 20010 Donostia / ☎ 45 59 57 / Faxa: 46 90 22

Erredakzio eta Tailerra: ANTZA S.A. Industrialeda, 01-02 Pabiloak / 20160 Lasarte-Oria / ☎ 37 07 38 Araba: San Antonio, 20-1.ezker. / 01005 Gasteiz / ☎ 23 38 72 / Faxa: 23 38 73

Nafarroa: Iratxe Monastegia, 45-13.esk. / (Irrintzi dorrea) / 31011 Iruñea / ☎ 17 80 78/79 / Faxa: 17 80 77

Gipuzkoa: Loiola, 14-1.3 / 20005 Donostia / ☎ 42 69 96 / Faxa: 42 93 18

Bizkaia: Barroeta Aldamar, 2-1.ezk. / 48002 Bilbo / ☎ 423 90 62 / Faxa: 423 94 60

Lapurdi / Baxenafarroa / Zuberoa: 2. Galuperia kaia. / 64100 Baiona / ☎ 59 59 35 75 / Faxa: 59 25 75 11

Lege Gordailua: SS 800/90